

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak kobratzea

2019ko urriaren 21etik abenduaren 20ra bitartean, bi egun horiek barne, egun baliodunetan, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek, ordainketa helbideratuta ez badute, Arraia-Maeztuko Udalak Maeztuko banku-erakundean duen kontuan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, epe horretan. Ordaindu aurretik, zergapekoek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak banku erakundeetan kobratuko dira epe horretan.

Epe hori igarotakoan premiamendu bidez kobratuko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, lege ezarritako errenergua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutzen interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2019ko irailaren 3a

*Alkatea*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**